

## Falsetoan

**U**rrunetik bidaliagatik, batak etxerako bidean, besteak Mexikorakoan, mila esker anitz, Inazio, Itxaro, aurrekoan esandakoagatik, nire euskaldun berritasunak sorrarazi erru sentimendu kristaua arintzen saiatzeagatik. Hobeki sentitu naiz. Lehenagotik ezagutzen nituen hainbat euskaldunek ere elkartasuna erakutsi didate, berme moral-a, batzuek nire egoera berean zeudela/daudela aitortu didate. Armairutik atera izan banintz bezalako zerbait izan da –bueno, armairutik ateratzeak zer dakarren asmatzen badut, inoiz ez bainaiz benetakotik atera, baina hori beste kontu bat da–. *Henscara, jalgi adi*. Bihotz harturik, lehengo konfiantza osoan, berrartzen ahal dut euskaldun idazlea izatearen nire hautua. Harik eta Inaziok, Itxarok eta beste hainbestek iruzur egin didatela Alberto Barandiaranen artikulu batek ikustarazten didan arte. “Baldin eta idaztea nork bere baitako ahotsari bidea ematea baldin bada, nola sorlekuko magia horren hizkuntza ez erabili? (...). Beti interesatu zait beste hizkuntza bat hautatzen dutenena. Euskaldunak izanda, gaztelania erabiltzen dutenena, esan nahi dut. Kepa Murua, Gil Bera, Irazoki bera. Ez dira asko, egia da, baina beti iruditu zait ez zaiela erraza egiten hautu hori justifikatzea”. Kontrarako argudio bidea ontzat hartuta, berriz ere nago zalantzarik aseezinenak, beltzenak jota.

Irtenbide polita, seguruenik bakarra, izan daiteke Madonnaren abestiak, Itxarok proposatu bezala, entzutea eta Aizkorrraino dantzatu, modu askatzailean dantzatu ere. Baina neurekiko galdetzen dut Madonnaren arrakasta ez ote den planetarioegia Euskal Herrirako. Globalizazioak irentsiko gaituen beldurrez-edo, susmoa dut gero eta anglofoboagoak gara euskaldunak. Garai bateko euskara-ingelesa elebiduntasunaren ametsak porrot



JOSU SANTISTEBAN

Angel Erro

Basterrretxea

Borda

egin du. Lehenago ingelesaren bitartez gaztelaniari eta frantsesari txanda pasa egin nahi genien. Gaur, zenbaiti aditu diot, hobe luke euskarak bere mailako –bere mendetasun mailako, ulertu behar delakoa nago– beste hizkuntza txiki-ekin zuzenean harremanak izan balitu.

Kaikukeriaren aurrean ere Madonna dantzatu behar, baina e-mule lortu berritik jaitzikoen zerrenda ikusita ez dut Madonnarenik. Gainera ez dakit dantzatzen. Katerinek –hau bai dut jaitzia– abestu bezala, *j'adore regarder danser le gens. Et de temps en temps*, jarraitzen du abeslariak, *je coupe le son*. Grazia egiten dit letrak, baita kantatzeko manerak ere. Ohartu naiz azkenaldian gehien gustatzen zaizkidan kantetan abeslariak falsetoa sartzen dutela. Mikak *Grace Kelly* kantan, Miranda talde argentinarrak *Don* kantan, Katerinek berak noiznahi.

Falsetoaren errekurtsio bokala erretorikan ironiaren baliokidea litzateke nire ustez. Ironiarekin behintzat ongi ezkontzen da, izenez ere bai. *I try to be like Grace Kelly but all her looks were too sad, so I try a little Freddie. I've gone identity mad!* Orain pentsatzen dut Patti Smithengan, ea bere kantaren bat falsetoan abesteko prest legokeen. Uste dut ezetz. Berriki New Yorken antolatu poesia katalanaren irakurraldi batean ez omen zuen Martí i Pol-en *Les paraules* poema errezitatu nahi izan, ez zuelako ulertzen. Ironikoa zela azaldu zioten, eta berak ezezkoa, ez zuela irakurriko, bera ironikoa ez delako.

Arreba gogaitu da nik egun osoa oihutxoak egiten entzuteaz, noizbehinka soinua eteten dudala, eta soinua berriz jartzen dudala errepikatzen entzuteaz. Ez ditu nire falsetoak jasaten. Azaldu egin diot ironiarena, eta kale. Haren ustez, falsetoak ironikoa bainoago lumadunak dira, eta, gogoratu zaitez armairuan zaudela, esan dit. ■

Globalizazioak irentsiko gaituen beldurrez-edo,  
susmoa dut gero eta anglofoboagoak  
gara euskaldunak. Garai bateko  
euskara-ingelesa elebiduntasunaren  
ametsak porrot egin du